

IBAIK GAINEZKA



BOB EDME

URDAZURI, GAINEZKA. Urdazurik ezin izan zien eutsi atzoko euri erauntsiei, eta Senpere aldean gainezka egin zuen. Ez zuen kalte handirik eragin, ordea: baratze eta zelai batzuetan baino ez. Egoerarik larriena, marea goran izan zen.



GAIZKA IROZ

ERROBIN UR-GORALDIA. Lapurdiko hainbat bazter urez estaliak izan ziren atzo, Errobi ibaiak gainezka egitean. Herri batean baino gehiagotan egin zuen gainezka ibaiak. Halaber, Atturri ibaian ere uraren heina oso goiti zen atzo gauean, eta gainezka egingo zuen beldur ziren larrialdi zerbitzuak.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

ZADORRARI BEGIRA. Hala igaro zuten atzo egun osoa arabarrek, Zadorra ibaiari begira. Izan ere, ibaiak gainezka egin zuen eta kalte handiak eragin zituen Gasteiz eta inguruetan, Urizarri Ganboako uhateak ireki behar izan zituztelako ura ateratzeko.

Itoizko isurbideek ezin izan zuten ur guztia hustu

SOS Itoitz taldeak urtegiaren inguruan izaniko uholdeak eta luiziak salatu ditu

Erredakzioa | IRUÑEA

«Hasi dira hondamendiak». Esaldi horrekin laburbildu zuten atzo goizean Itoizko urtegiaren inguruan gertatutakoa SOS Itoitz taldean bat egiten duten Artzibarreko eta Longidako biztanleek. Taldeak salatu zuen urtegiako isurbideak ez zirela gai izan jasotako ur guztia husteko, eta, ondorioz, errepidean urak gainezka egin zuela.

SOS Itoitzek gaineratu zuen urtegi hilak 510 metroko maila gaintu zuela. Duela astebate Antonio Casas geologoak aipatu zuen Itoizko Koordinakundeak kideekin egindako agerraldian isurbideak ez zirela ibaiaren ur-emari handiari aurre egiteko gai, eta isurbideak urak garraiatutako zaborrarekin ixteko arriskua bazegoela. Azken egunotako elurteek eta atzoko euriteek Euskal Herri osoan eragin dituzte uholdeak, bai eta Itoitz inguruan ere.

Saihesbide berrian ere, Olaberriko bidegurutzean, luizia izan zen. SOS Itoitz taldeak azpimarratu zuen eroritako ezponda hori hormigoiarekin sendotu zutela aurretik, baina, hala ere, atzo ezin izan zion eutsi.

Arrisku handiagoa

Itoizko Koordinakundeak atzo salatu zuenez, Irati ibaiaren tunela itxi zutenean Nafarroako Gobernuak, Espainiako Inguru-

BETETZE PROBAK

Itoizko urtegia betetzeko probak bertan behera utz ditzatela, eta larrialdi plana abian jar dezatela eskatu du Lakabek

men Ministerioak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak bazekiten zer nolako eguraldia zetorren. «Baita isurbideek ezingo zutela Irati ibaiaren emari handia kanporatu ere». «Ondorioz», Koordinakundearen esanetan, «urtegia kontrolik gabe dago. Gainera, datozten egunetan agintariak ezingo dute kontrolatu Itoitzen pilatutako ur kopurua, eta Irati ibaiaren esku dago».

Lakabeko Kontzejuak ere (Artzibar) jendaurrean azaldu zituen atzo, agiri baten bidez, azken egunotan eguraldiaren ondorioz pairatutako egoera, eta Itoizko urtegiak izan duen eragina. Nagore eta Agoitz arteko errepide berrian luiziak izan direla nabarmendu zuten, eta, Itoizko urtegiako presak, areagotu dituela uholdeek eragindako arriskuak.

Egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuaren jarrera salatu zuten: «Dauden arazoak konpontzeko eskaerak ez dituzte aintzat hartu».



LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Arga ibaiak gainezka egin zuen atzo Iruñerrian.

Elurraren ostean, ura

IBAIK GAINEZKA IRUÑEAN. Nafarroako hiriburuan arazo ugari eragin zituzten atzoko uholdeek; hainbat errepide itxi behar izan zuten

E. Elizondo | IRUÑEA

Ekaitzaren ostean omen dator barealdia, baina Iruñera, elurraren eta izotzaren ostean, ura etorri da. Ekaitzak ez du amaierarik. Arga, Sadar eta Elorz ibaiak gainezka egin zuten azken egunotako elurteen eta atzoko euriteen ondorioz, eta arazo ugari eragin zituzten hiriko hamaika txokotan.

Goizean goizetik adi ziren hiriko agintariak eta herritarak, gau osoan egin baitzuen euri; berdin esnatu zen eguna. Euripean. Ibaiek irudi beldurgarria erakusten zuten: urak, txokolatea bezain marroi, ziztu-bizian, bidean aurkitutako enborrak eta zaborrak batetik bestera eramaten zituen.

Eguerdian Uholdeetarako Larrialdi Plana abian jarri zuen Nafarroako Gobernuak, egoerak txarrera egiten zuela ikusita. Izan ere, goizeko 10:00ak eta 12:00ak bitartean igo zen gehien ibaietako ur-emaria. Arga, Sadar eta Elorz ibaietako bazterretan aparkatuta ziren autoak bertatik kentzeari ekin zioten Iruñeko Udaleko garabiek. Hainbat errepide moztu behar izan zituzten ere. Nafarroako Unibertsitate Publikoan, adibidez, arazoak eragin zituen Sadar ibaiak, gainezka egin baitzuen. Nafarroako Unibertsitatearen eta Zizur Txikiaren arteko errepidea ere moztu behar izan zuten. Urak gainezka egin zuen ere Magdalena auzoan eta Aran-

zadi inguruan, bai eta Iparraldeko saihsbidean ere.

Iruindarrak zeruari eta urari so

Begirada gora, begirada behera eman zuten eguna iruindarrek, zerura begira, atertuko ote zuen, ibaira begira gero, gainezka noiz egingen ote zuen iragarri nahian. Egunak aurrera egin ahala Elorz eta Sadar ibaien egoerak hobera egin zuen. Bazterretako hainbat zuhaitz kendu zituzten Iruñeko Udaleko langileek horretarako.

Argaren ur-emaria, ordea, igotzen jarraitu zuen oraindik arratsaldeko lehen orduetan. Mendietako elurrak eta botatako euriak bidea behar baitzuten.